

**ANIMALIAK EDUKI  
ETA BABESTEKO  
UDAL ORDENANTZA  
ARAUTZAILEA**

## AURKIBIDEA

### ZERGATIAK

#### I. IDAZPURUA HELBURUAK, DEFINIZIOAK ETA ESPARRUA

- I. ATALBURUA HELBURUAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA
- II. ATALBURUA DEFINIZIOAK

#### II. IDAZPURUA ARAU OROKORRAK

- III. ATALBURUA IZAERA OROKORREKO ARAUAK

#### III. IDAZPURUA LAGUNTZAKO ZAKUR ETA KATUAK

- IV. ATALBURUA ERROLDA ETA IDENTIFIKAZIOA
- V. ATALBURUA OSASUN-KONTROLA
- VI. ATALBURUA ANIMALIAK TOKI PUBLIKOETAN IBILTZEA
- VII. ATALBURUA BILKETA-ZERBITZUA

#### IV. IDAZPURUA HONAKO HAUEK BETE BEHARREKO ARAUAK

- VIII. ATALBURUA HAZTEGIEK
- IX. ATALBURUA SALTOKIEK
- X. ATALBURUA KONSULTATEGIEK, KLINIKEK, ...
- XI. ATALBURUA BEHIN-BEHINEKO JARDUEREK

#### V. IDAZPURUA ZIGOR-ARAU BIDEA

#### XEDAPEN DEROGATZAILEA

#### AZKEN XEDAPENA

## **ZERGATIAK**

Animali mota guztien, hau da, laguntzakoen eta laguntzakoak ez direnen, edukitza arautzeko helburua du, horien eta pertsonen arteko elkarbizitza eta ingurunearen osasunerako eta pertsona eta ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako izan daitezkeen arriskuak harmonizatuz.

Halaber, tratu, higie, elikadura, babes, exhibizio, garraio eta identifikazioari dagokienez, animaliek jaso beharreko gutxienezko arreta eta animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza ere arautzen ditu.

Animaliak aldi batez edukitzen dituzten establezimenduek bete beharreko arauak eta albaitaritza-kontsultategi, -klinika zein -ospitaleen eta animalia saltokien baldintzak eta ezaugarriak ezartzen ditu.

Azkenik, arau-haustek eta zigor aplikagarriak zernolako eta prozedura zigortzailea ezartzen du.

# **I. IDAZPURUA HELBURUAK, DEFINIZIOAK ETA ESPARRUA**

## **I. ATALBURUA HELBURUAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA**

### **1. Atala**

Ordenantza honen esparru geografikoa Mendaro da, zehatzago esanda, horren hirigunea.

### **2. Atala**

Ordenantzaren helburua da, udalerrian dauden etxabere, etxekotutako animaliak eta animalia basatiak babesteko arauak ematea, animaliak eta pertsonak elkarrekin bizi daitezen.

Ordenantza honen esparrutik kanpo geratzen dira eta araubide berezia izango dute honako hauek:

- a) Ehizak.
- b) Arrantzak.
- c) Basa fauna berezko ingurunean babesteak eta zaintzeak.
- d) Zezenak.
- e) Animaliak Saiakuntzarako eta beste helburu zientifikoetarako erabiltzeak.

## II. ATALBURUA      DEFINIZIOAK

### 3. Atala      Definizioak

– Laguntzako animaliak.

Gizakiak, irabazizko jarduerarik gabe, batipat etxean helburu ludiko, hezitzaile edo ornamentalarekin edukitzen dituen animalia guztiak, bai etxekotuak bai basatiak.

– Ustiapenerako animalia.

Giza inguruneari egokituriko animalia izanik, gizakiak irabazizko helburuarekin mantentzen dituenak; irabazi horiek, animalietan beraietan eta sortzen dituzten produkzioetan oinarritzen dira.

– Animalia basati gatibuak.

Basati edo gatibutzan jaiorik, gatibu bizitzera behartuta daudenak, nahiz eta etxekotzeko hezibiderik ez izan.

– Animalia abandonatua.

Animalia abandonatutzat jabe, helbide ezagun eta datu horiek jasotzen dituen identifikazio-sistematik ez duena eta erroldan agertzen ez dena jotzen da.

Animalia abandonatutzat hartzen da, halaber, honako kasu hauetan: erroldan agertu arren, bere desagerketa arautegi honek ezartzen dituen epean salatzen ez denean edo bide publikoan jaberik gabe zirkulatzeko duenean.

## **II. IDAZPURUA    ARAU OROKORRAK**

### **III. ATALBURUA    IZAERA OROKORREKO ARAUAK**

#### **4. Atala**

Laguntzako etxeko animaliak etxebizitza partikularretan edukitzea izaera orokorrez baimentzen da, betiere alojamendu-baldintzak, instalazioen egokitasunak eta animalion kopuru eta bolumenak ahalbidetzen badute, bai higiene eta osasunaren ikuspuntutik bai auzokideentzat edo, oro har, edozein pertsonarentzat zein animaliaarentzat berarentzat, bere izaeratik eratortzen ez den beste arrisku- edo eragozpen-egoerarik ematearen aldetik.

Animaliak balkoi, garaje, pabiloi, soto, azotea, lorategi edo beste edozein tokitan ohizkotasunez edukitzea edo ikuilatzea debekatuta dago, horien usain, zarata, zaunka eta orroek auzokideak zein oinezkoak molestatu egiten dituztenean.

#### **5. Atala**

Debekatuta dago hirigunean hazkuntzarako ustiapen-animaliak izatea eta animali mota hori etxebizitza partikular, terraza, azotea, ganbariko, garaje, trasteleku, upategi edo patioetan gordetzea edo ikuilatzea.

#### **6. Atala**

Animalia basatiak parke eta zoologikoetatik edo horientzat dauden tokietatik kanpo edukitzeko, espreski horretarako emandako baimena beharko da eta auzokideei enbarazurik edo arriskurik ez sortzeko erantzukizuna hartuko du jabeak. Hortaz, debekatuta dago animalioek kanpo-lekuetan edo publikoarentzat irekita dauden lokaletan aske uztea.

## **7. Atala**

Animalien jabeak edo edukitzaileak horien ongizate egokirako elikagaiak ematera eta zaintzera behartuta daude, horien gaixotasun eta sendaketen tratamenduari eta Aginteez ezartzen dituzten neurri administratiboak eta osasun-neurri prebentiboak aplikatzeari dagokionez. Halaber, beren espezieari dagokion alojamendua ere emango die.

## **8. Atala**

Albaitari kolegiatu batek animalia bati pertsonentzat kutsagarria den gaixotasuna diagnostikatu badiu eta haren iritziz akabatu egin behar bada, eutanasia sistema bat erabiliko da eta jabeak ordainduko du; halaber, akabatu egingo dira afekzio kroniko sendaezinak izanik, jabeek ondo zainduta ez daudenak.

## **9. Atala**

Animalien babes eraginkorrerako, debekatuta dago:



- 1.- Eraso-ekintzen bidez edo substantzia toxikoak emanda heriotza eragitea; substantzia toxikoak bide eta gune publikoetan uztea; animaliei min edo gogorkeriazko ekintzak egitea, hau da, tratu txarrak ematea, bai norbere eta inoren animaliei bai etxeko, etxekotutako eta basatiei bai elkarbitzitzako eta gatibutzakoei.
- 2.- Antzoki, dantzatoki, filmaketa edo propaganda-jardueretan animaliak erabiltzea, baldin eta horrek kaltea, oinazea edo degradazioa ekartzen badie.
- 3.- Animalien arteko borroka publiko eta pribatu guztiak edo animaliak akabatu, zauritu eta eraso egiten direneko paradoriak.
- 4.- Animaliei mozketak egitea, albaitarien ardurapean premia terapeutikoagatik, funtzionaltasunagatik edo arrazaren ezaugarriei eusteko egiten direnak ezik.
- 5.- Espreski debekatuta dago animaliak bazter uztea.
- 6.- Animalien kostuzko transakzioa ez den beste izaera bateko eskurapen batzuen truke sari, eskupeko edo operari gisa ematea.
- 7.- Adin txikiko eta elbarrituei animaliak saldu, laga edo ematea, horien guraso- boterea edo zaintza dutenen baimenik gabe.
- 8.- Era guztietako animalien salmenta ibiltaria, behar bezala baimendutako azoka eta merkatuetatik kanpo egiten denean.

- 9.- Animaliak laborategi edo klinikei saltzea Administrazioaren kontrolik gabe.
- 10.- Alkohola, drogak edo farmakoak ematea eta kalte fisikoak edo psikikoak sor ditzaketen manipulazio artifizialak egitea, batipat lehiaketa batean errendimendua aldatzeko baldin bada.
- 11.- Babesturiko espezieko animaliak saltzea, baita edukitzea eta exhibitzea ere, legeriak zehazten duen terminoetan.

### **III. IDAZPURUA    LAGUNTZAKO ZAKUR ETA KATUAK**

### **IV. ATALBURUA    ZENTSOA ETA IDENTIFIKAZIOA**

#### **10. Atala**

Zakurren jabe edo edukitzaileak behartuta daude horiek identifikatu eta zentsatzera jaio edo eskuratu diren hiletik hasita. Horretaz gain, animalia-aren osasun-kartila izan beharko dute. Betebehar horiek beste laguntzako animaliei ere badagozkie.

#### **11. Atala**

Animaliak ezarpen elektronikoa bidez identifikatuko dira, animalien identifikazioari buruz 1993ko maiatzaren 25eko 109/93 Aginduak ezarritakoaren arabera.

#### **12. Atala**

Udalak Zakurren Zentsoa izango du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Abelazkuntza Zerbitzuan dagoen Gipuzkoako Animalien Identifikaziorako Lurralde Erregistroko Zentsoarekin edo Bizkaiko Lurraldeko bere homologoarekin konektatuta egongo dena.

Udala, halaber, urteko aldizkakotasunarekin datu-basearen mantenimenduaz arduratuko da eta datuak isilpean gordetzeko erantzukizuna izango du.

### **13. Atala**

Animalien heriotzogatik izandako bajak, jabe edo edukitzaileek bere albitariari jakinaraziko dizkiote; honek, halaber, Udalari edo dagokion Lurralde Erregistroari helaraziko dio heriotza gertatu den egunetik hasi eta 10 egunen barruan.

### **14. Atala**

Lapurtu edo desagertuz gero, salatu egin beharko da eta ondoren albitariari edo zuzenean Udalari jakinaraziko zaio gehienez 10 eguneko epean.

### **15. Atala**

Helbidez aldatu edo animaliaaren edukitza eskualdatzen duten zakur-jabe edo -edukitzaileek, zirkunstantzia horiek albitariari, Udalari edo dagokion Lurralde Erregistroari jakinaraziko dizkie.

### **16. Atala**

Identifikazio-zerbitzuen, osasun-kartila egitearen eta Zentsoan inskribatzearen kostua jabearen kontura izango da eta urtero zehaztuko da.

### **17. Atala**

Ordenantza honetan abandonatuzat harturiko animaliak, dagokion udal zerbitzuak atxikiko ditu.

## **V. ATALBURUA      ANIMALIEN OSASUN-KONTROLA**

### **18. Atala**

Derrigorrezkoa izaten jarraitzen du jabeek zakurraren osasun-kartila izatea.

### **19. Atala**

Gizaki eta animaliei transmiti dakiekeen gaixotasunen bat diagnostikatu edo horren sintomak aurkitu bazaizkie nahiz gizakiari eraso badiote, Udalak animalioak isolatu edo/eta erretiratzea aginduko du.

### **20. Atala**

Zirkunstantzia partikularrek edo gaixotasunen baten hastapenek hala eskatzen dutenean, Udalak egoki iruditzen zaizkion neurriak hartuko ditu, gizakiaren edo beste animalia batzuen osasunerako arriskugarria izan ez dadin.

### **21. Atala**

Haginka eginez lesioak sortu dituzten katu eta zakurrek, gai honen erantzukizuna duen Osasun Sailari egoki iruditzen zaizkion kontrolak jasango dituzte.

## **VI. ATALBURUA      ANIMALIAK TOKI PUBLIKOETAN IBILTZEA**

### **22. Atala**

Bide publikoetan eta pertsonak ibiltzen diren beste leku batzuetan, zakurrak lepoko eta uhaletik helduta eramango dira eta zirkunstantzialki beren jabeen alboan. Mozalaren erabilera udal Agintaritzak ezarriko du zirkunstantziak hala eskatzen dutenean eta inoiz haginka egin badute edo arriskugarriak direla jakiten bada.

### **23. Atala**

Animaliak ezin izango dira honako leku hauetan sartu:

- A.- Edozein motatako elikagaiak fabrikatu, biltegitatu, garraiatu edo saldu egiten diren lokaletan.
- B.- Ikuskizun publiko, kiroleko, kultural edo jolaserako lokaletan, zein igerileku publiko eta osasun-zentroetan, animaliak funtsezkoak diren txapelketa, lehiaketa eta ikuskizunak daudenean salbu.
- C.- Ikastetxeetako geletan, burutzen ari diren prestakuntza-prozesuetan animalioek erabili behar ez badira, Zuzendariaren edo Ikastetxeko arduradunaren erantzukizunarekin.

Establezimendu horien titularrek, debeku-seinaleak jarriko dituzte ondo ikusteko tokian.

## **24. Atala**

Ostalaritzako establezimendu publikoetan, hala nola, hotel, pentsio, jatetxe, taberna, kafetegi eta antzekoetan, beren iritzien arabera, jabeek animaliak sartzea eta egotea debeka dezakete. Edonola ere, animaliak identifikatuta eta uhalez lotuta egotea eta, animalia-aren ezaugarriek zein izaerak hala eskatuz gero, mozala eramatea exigitu beharko dute, baina betiere, gaixotasun-sintomarik zein garbitasun-faltarik agertzen ez badute.

Ez dute elikadurak egin eta manipulatzeko diren tokietan sartzerik izango.

## **26. Atala**

Toki komunitario pribatuetan (hala nola, kultur zein jolas-elkarte, auzokideen erabilera amankomuneko ingurune eta abarretan) animaliak sartu eta egoteari dagokionez, erakunde horien araei jarraituko zaie.

### **27. Atala**

Animaliekin doazen pertsonak igongailua erabiltzeari dagokionez, beste pertsona batzuekin batera erabiltzea tokatzen denean, ez da aparatua batera erabiliko beste horiek nahi ez badute.

### **28. Atala**

Debekatuta dago animaliak garraiabide publikoetan eramatea, pertsonentzako eta helburu horretarako esparrua fisikoki banatuta dutenetan ezik. Poltsa, saski edo antzekoetan inobilizatuta badoaz, berriz, garraiatu ahal izango dira. Garraiabidea taxia bada, ibilgailuaren titularrak esaten duenari jarraituko zaio.

### **29. Atala**

Zakur itsuarrekoei gagozkiolarik, zeregin horretan aritu eta osasun-baldintza egokiak izaten badituzte, aipaturiko debekuetatik salbuesten dira, elikagaiak egin, biltegitatu edo saltzen diren tokietara sartzetik ezik, betiere gaixotasun- zein oldarkortasun-zantzurik eta garbitasun falta nabari ez bazaie eta pertsonen osasunerako arriskugarriak ez badira.



Zakur itsuarrekoek lagundurik doazen pertsona elbarrituak garraiabide publikoetan sar daitezke.

### **30. Atala**

Debekatuta dago zakurren gorotzak bide eta plaza publikoetan, haur-parkeetan eta, oro har, apaindura-tokietan zein pertsonak dabiltzan lekuetan uztea. Beraz, zakurrak eramaten dituzten pertsonak galtzadara, zehatzago esateko, zintarri edo bordilo ondora eta estolderiaren isurbide batetik ahalik eta toki hurbilenera, eta Udalak horretarako prestatuturiko inguruneetara gidatuko dituzte animalioak.

Hala eta guztiz ere, gorotzak espaloietan edo oinezkoak dabiltzan tokietan eginez gero, jabeak edo animalia daraman pertsonak horiek kentzeko erantzukizuna du. Gorotzak poltsa iragazkaitz eta itxietan sartu eta zakarrontzi edo Udal Zerbitzuek adieraziriko beste edukiontzi batzuetara, etxeko zaborra biltzeko poltsetara edo zuzenean estolderiaren isurbidera botako dira.

Zakurren batek bide publikoa zikinduz gero, hiritarrek animalia jabe edo edukitzaileari, egindako kaltea berehala konpon dezala eskatzeko ahalmena dute.

### **31. Atala**

Udala, aurrekontuaren arabera eta egoki irizten dionean, lorategi eta parke publikoetan zakurrak ilbili eta jostatzeko espazio egokiak prestatzen ahaleginduko da. Bestalde, laguntzako animalien gorotzetarako beharrezko ekipamendua jarriko du bide publikoan, kokapena seinlatu eta adierazita.

### **32. Atala**

Animaliaren jabeak bide edo lokal publikoan egon edo ibiltzeak 3. pertsoneri eta ondasun pribatuei zein publikoei ekar diezazkiekeen kalte-galeren erantzukizuna izango du.

## **VII. ATALBURUA      BILKETA-ZERBITZUAK**

### **33. Atala      Animalia hilak**

Udalak, Mankomunitateak ematen duen zerbitzuaren bidez, animalien gorpuak jasoko ditu bide publiko, hondartza eta ibai ertzetatik, Lurzoruaren Legearen arabera lurzoru ez urbanizagarri kalifikaturikoetan daudenak ezik.

Gorpuak etxebizitza partikular, albaitaritza-klinika edo establezimendu batetik lekualdatu behar bada, jaso egingo da, baina ezarritako tasen menpe.

### **34. Atala      Zakur eta katu abandonatuen kontrola**

- 1.- Animalia abandonatutzat jaberik ez izateaz gain, zentsatua ez daudena hartuko da, eta zentsatua badago, desagertu dela salatzen ez denean.
- 2.- Herrian edo hiriarteko bideetan barrena jabe edo laguntzailerik gabe dabilzan zakurrak, horretarako dauden eskualdeko zerbitzuek jaso eta eskualdeko zakurtegira eramango dira.
- 3.- Zakurtegian behatu egingo dira animaliak gutxienez hogeita hamar lanegunetan. Ondoren, jabeek jaso ahal izango dituzte; horretarako, jabeak direla frogatzeaz gain, zigorra eta udalek urtero ezarri eta argitaratuko dituzten gastuak ordaindu beharko dituzte.
- 4.- Albaitaritza Aginte eskudunen iritziz, osasun- edo arriskugarritasun-zirkunstantziek hala aholkatzen dutenean, akabatzeko epe hori hogeita lau ordutara jaitsiko da.
- 5.- Hogeita hamar egun igaro eta jabeek jaso ez badituzte edota dagozkien eskubideak ordaintzeari uko egin badiote, eskatzen duen edozeinen eskueran geldituko dira, baldin eta animalia osasun- eta administrazio-egoera erregulatuko duela agintzen badu.
- 6.- Animalia identifikatuta badago, zakurtegitik beharrezko gestioak egingo dira jabeari animalia harrapatu dela jakinarazteko.
- 7.- Besterik ezean, akabatu egingo dira albaitari baten kontrolpean eta eutanasia bidez, edo eskatzen duten Animalien Babeserako Elkarteei izaera zientifikoko zentro zein erakundeei emango zaizkie; horretarako, Albaitaritza Zerbitzu eskudunek, baimena emateaz gain, txostena egingo dute, eta garraioaren gastuak beste horien kontura izango dira.

- 8.- Beren lana egiten ari direnean, lakilariek Aginte Agentaritza oniritzia izango dute eragin guztierako.

## **IV. IDAZPURUA ANIMALIAK ALDI BATEZ EDUKITZEN DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEK BETE BEHARREKO ARAUAK**

### **35. Atala**

Idazpuru honek barne hartzen ditu:

- A.- Haztegiak, trebakuntza-zentroak eta egotetxeak.
- B.- Animalia saltokiak.
- C.- Albaitaritzako kontsultategi, klinika eta ospitaleak.
- D.- Udalerrietako aldizkako jarduerak (zirkoak, zoo ibiltariak, ...).

### **36. Atala**

Jarduera horiek, Jarduera Nekagarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskugarrien Araudiak zehazturikoaren arabera Udal Baimena izan eta Abelazkuntzako Foru Zerbitzuaren Erregistroan jasota egon behar dute.

## **VIII. IDAZPURUA HAZTEGI, TREBAKUNTZA-ZENTRO ETA ALDI BATERAKO EGOTETXEAK**

### **37. Atala**

Animali haztegi, trebakuntza-zentro eta egotetxeek animalien sarrera eta irteeren Erregistro Liburua izango dute, Osakidetzako Agintarien eskueran egongo dena, eta hiruhilero Udalari honako datu hauek helaraziko dizkiote: saldutako animaliak eta horien jatorria, espeziea, arraza eta eroslea.

### **38. Atala**

Eraikuntza, instalazio eta ekipoek, garbitasuna ahalbidetzeaz gain, bertan dauden animaliak babestu eta egin beharreko ekintza zoosanitarioak burutzea erraztuko dute. Halaber, animaliak egoki manipulatzeko eta, animalion izaeraren arabera, bizitza-giroa onargarria izatea ziurtatuko dute.

### **39. Atala**

Edateko ura izango dute zentroan dauden pertsona eta animalien kontsumorako, baina instalazioak garbitzeko bestelako urik erabili ahal izango da.

### **40. Atala**

Barruko saneamendu-sarea izango dute, neurri zuzentzaile egokiak dituen, sektoreko araudian ezarritakoaren arabera, gorotzak eta ur-hondakinak kanporatzea errazteko eta osasun publikoan eta higielean sor daitezkeen arriskuak txikitzeko.

#### **41. Atala**

Hersgune, lokal eta kaiolak erraz garbi eta desinfekta daitezkeen materialez eta eran egingo dira. Hersgune horiek, animalia-aren tamainuaren arabera, horien ongizatea bermatuko duen gutxienezko azalera izango dute.

#### **42. Atala**

Lokalek, animaliekin erabiltzen diren lanabesak eta animalio-kanporatze-ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko tresna eta bitartekoak izango dituzte.

#### **43. Atala**

20 animalia bakoitzeko kaiola bat izango dute gutxienez, gaixorik dauden edo egon daitezkeen animaliak isolatu, bahitu edo garbitzeko, eta erraz garbitu nahiz desinfektatzekoak izango dira.

Halaber, animalien gorpuak eta kutsadura sor ditzaketen gaiak suntsitu edo kanporatzeko bitarteko egokiak ere izango dituzte.

#### **44. Atala**

Higiene- eta profilaxi-programa bat egingo dute albaitari tekniko baten laguntzarekin. Bertan, beharrezkoa den guztietan eta gutxienez sei hilero lokalen eta animaliekin erabiltzen diren materialen desinfekzio, desinsektuketa eta desarratoiketa sakona egingo dela jasoko da.

Albaitari Ikuskatzaile Ofizialek, instalazioen eta bertan dauden animalien egoeraren arabera, jardueraren titularrei higie eta osasunezko urritasunak konpontzeko beharrezko neurriak har ditzatela eskatuko diete.

### **IX. ATALBURUA ANIMALI SALTOKIAK**

#### **45. Atala**

Animali saltokiek albaitari aholkularia izango dute, espeziea, arraza, adina, jatorria, inportazioaren baimen-zenbakia, sarrera- eta irteera-egunak, norakoa eta bestelako ohar interesgarriak jasoko dituen animalien sarrera eta irteeren erregistro-liburuaz arduratuko dena. Liburu hori, Udal Agintari Sanitarioen eskueran egongo da eta, hiruhilero, salduriko animalien berri emango zaio Udalari, animalion ezaugarriak eta eroslea zehaztuta.

Animalia biziren bat saltzen duenak dokumentu bat eman beharko dio erosleari. Agiri horrek animalia berriaren ezaugarriak, jatorria eta osasun-egoeraren ziurtagiria jasoko ditu. Ziurtagiri horrek ez dio inkubazio-gaixotasunen erantzukizunik kenduko jabeari, nahiz eta saldu zuenean agiri ez.



#### **46. Atala**

Animali saltokiek hersguneak, kaiolak edo edukinontziak izango dituzte animaliak egoera onean edukitzeko bestekoak.

#### **47. Atala**

Debekatuta dago fauna babestuko animalien salerosketa.

## **X. ATALBURUA ALBAITARITZAKO KONTSULTATEGI, KLINIKA ETA OSPITALEAK**

## **48. Atala**

Animalia txikiei kontsulta klinikoak eta tratamendu sanitarioak egiten dizkioten anbulategi-establezimenduak honela sailkatuko dira: Albaitaritzako Kontsultategia, Albaitaritzako Klinika eta Albaitaritzako Ospitalea.

– **Albaitaritzako Kontsultategia**

Kontsultategizat hartuko dira gutxienez harrera-gela eta kontsultarako nahiz sendaketa eta zirugiako ebakuntza txikietarako beste gela bat dituzten tokiak.

– **Albaitaritzako Klinika**

Klinikatzat hartuko dira gutxienez itxarongela, kontsulta-gela eta ebakuntza kirurgiko, instalazio radiologiko, laborategi nahiz bizkortze-aukeretarako gela dituztenak.

– **Albaitaritzako Ospitalea**

Albaitaritzako Klinikarako behar diren baldintzez gain, honako hauek izango ditu: ospitaleratze-gela, eguneko 24 orduetan zaintza sanitarioa duena, eta etengabeko laguntza ospitaleraturiko animaliei.

## **49. Atala**

Establezimendu guztiek Udal Baimena beharko dute eta eraikin isolatuetan edo behetxeetako lonjetan bakarrik kokatu ahal izango dira, Albaitaritzako Ospitaleak ezik; izan ere, debekatuta dute euren jarduera etxebizitzarako eraikinen pisuetan burutzea. Halaber, ezin izango dira hartzaindegietan eta animalien egoitzetan kokatu honako kasu honetan salbu: kontsulthen titularraren jabegokoak direnean, gainerako geletatik egoki isolatuta

daudenean (gela batetik besterako sarrerarik gabe) eta biek ere eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenean.

### **50. Atala**

Albaitaritzako Ospitaleak etxebizitzetatik bereiztuta egongo dira baimena eskuratu ahal izateko. Jarduera horretarako erabiltzen den eraikina, itxia izango da eta ospitale-plaza bakoitzeko gutxienez 20 metro karratuko gunea libre izango du.

### **51. Atala**

Debekatuta dago dendetan eta horien geletan albaitaritzakontsultak eskaintzea bai noizik behin bai akzesorioki bai aldiro-aldiro, eta bereziki botiketako bulego, janari-denda, ostatu, jatetxe, animalia saltoki eta animalien babeserako elkarte edo erakundeen lokaletan.

### **52. Atala**

Ekipamendu eta instalazioek sektoreko arauak eta honako baldintza hauek beteko dituzte:

- Zoruak iragazkaitzak, gogor edo iraunkorrak eta erraz garbitzekoak izango dira.
- Parametro bertikalak gutxienez 1,75 metroraino egongo dira alikatatuta. Gainerakoa eta sapaia, iraupena, garbitasuna eta desinfekzioa ahalbidetzen duten materialez egindakoak izango dira.

- Edateko ur hotza eta beroa izango dute, beroa gutxienez 82° Ckoa.
- Gorpuen kanporaketa eskualdeko zerbitzuaren bidez egingo da.
- Sorturiko hondakinen kanporaketa ontzi itxietan eta estankoetan egingo da, ezarritako arau espezifikoaren arabera.

## **XI. ATALBURUA BEHIN-BEHINEKO JARDUERAK**

### **53. Atala**

Era honetako jarduerak burutzeko derrigorrezkoa da beharrezko udal baimenak izatea.

### **54. Atala**

Udal baimenen jabe izateaz gain, jarduera finkeen antzeko higiene eta osasunezko baldintzak bete beharko dituzte, aldi baterako izateak ezartzen dituen salbuespenekin.

### **55. Atala**

Baimen nahiz ziurtagiriei buruzko eta jardueran parte hartzen duten animalien jabetza, osasun nahiz jatorriari buruzko agiri guztiak arauz izango dituzte.



## **V. IDAZPURUA   ZIGOR ARAUBIDEAK**

### **56. Atala**

Ordenantza honen eraginetarako, arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak dira.

#### A.-    Arau-hauste arinak

- Laguntzako animaliak zentsu-identifikaziorik gabe edukitzea, baldin eta derrigorrezkoa bada.
- Animaliak Lege edo Araudietan ezarritakoa bete gabe garraiatzea.
- Zakurren gorotzak bide eta plaza publiko, haur-parke, lorategi eta apaingarritzat eta/edo pertsonak ibiltzeko erabiltzen den edozein lekutan uztea.
- Animaliak laguntza eta zaintza egokia eman ezin zaizkien tokietan izatea.
- Animaliei tratu txarrak ematea.
- Ordenantza honetan eta gainerako lege eta arauzko xedapenetan jasotzen diren obligazioak eta debekuak ez betetzea, horien izaera kausa beste kalifikazio bat behar dutenak salbu.

#### B.-    Arau-hauste larriak

- Animaliak beharrezko elikadura edo osasun-laguntzarik gabe eta, higie- eta osasun-ikuspuntutik, egokiak ez diren instalazioetan edukitzea.
- Albaitariaren kontrolik gabe edo Lege eta Araudietan ezarritako baldintzak kontutan hartu gabe, animaliak antzutzea, mozketak egitea eta akabatzea.
- Txertoak edo derrigorrezko tratamenduak ez ematea.
- Animaliak baimenik gabe saltzea.
- Ordenantza honek eragiten dien animaliak aldi baterako eduki, hazi edo saltzeari buruz Lege edo Araudiek ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Animaliei tratu txarra ematea edo erasotzea, beharrezkoak ez diren oinaze, lesio edo mozketak eginez.
- Animaliei beharrezkoak ez diren oinaze edo kalteak sortarazi dakizkiekeen substantziak ematea, zuzenean edo janarien bidez.
- Kalterik egin dezaketen animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik ez izatea.
- Nabariak eta larriak diren gaitzak eta minak izaki, albaitaritzaren sorospen egokirik ez ematea animaliei.
- Beharrezko administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.
- Sendetsitako erabaki bidezko zigorra jaso duten hiru arau-hauste arin eginak izatea, zigor-espedita hasi aurreko bi urteetan.

#### C.- Arau-hauste oso larriak

- \_ Zakurtegia jasota dagoen animalia norbere jabegokotzat identifikatuz gero, horretaz horretaz arduratzeari uko egitea.
- Animaliak eraso bidez edo substantzia toxikoak emanez hiltzea.
- Laguntzako edo etxeko animalia bazter uztea.
- Animaliei krudelkeria, tratu txarra edo oinazea eragiten dieten eszenak grabatzea.
- Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, droga, ... ematea, berezkoa ez duten edozein jokabide lortzearren.
- Janari pozoituak bide eta leku publikoetan uztea.
- Debekatutako ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.
- Sendetsitako erabaki bidezko zigorra jaso duten hiru arau-hauste larri eginak izatea, zigor-espedientea hasi aurreko bi urteetan.

## **57. Atala**

Aipatutako arau-hausteei ezarriko zaizkien zigorrak 5.000,-tik 2.500.000,- pezetara bitarteko isunak izango dira, mailakaketa honen arabera:



- Arau-hauste arinak: 5.000,-tik 50.000,- pta.ra
- Arau-hauste larriak: 50.001,-etik 250.000,- pta.ra
- Arau-hauste oso larriak:250.001,-etik 2.500.000,- pta.ra

Zigorren zenbatekoak urtero eta automatikoki eguneratuko dira Kontsumo Prezioen Indizearen arabera eta aurreko urteko zigorraren zenbatekoari aplikatuko zaio.

## **58. Atala**

Zigor-erabakiak arau-haustearekin zerikusia duten animalien bahiketa aginduko du, animalia-aren gorputz-osotasuna bermatzeko beharrezkoa baldin bada.

Bahituriko animaliak zakurtegi amankomunitatean edukiko dira eta hirugarren bati emango zaizkio. Jabe berririk aurkitu ezean, akabatu egingo dira Lege eta Araudietan ezarritakoaren arabera.

Arau-hauste larri edo oso larriak eginez gero, instalazio, lokal edo establezimenduei aldi baterako ixteko agindua eman ahal izango zaie: arau-hauste larrietan, gehienez bi urterako eta arau-hauste oso larrietan, gehienez lau urterako; animalia gehiago erosteko debekua ere ezarri ahal izango zaie, gehienez ere lau urtez.

Oso larritzat jotako eta zigorturiko arau-hausteetan hiru urte pasa baino lehen berriro eroriz gero, animaliak hazi, saldu, aldi batean eduki eta trebatzeko behar den administrazio-baimena behin-betiko galduko da.

## **59. Atala**

Isunen zenbatekoa neurtzeko eta aurreko atalean jasotzen diren zigorren iraupena zehazteko, gorabehera hauek hartuko dira kontuan: egindako arau-haustek gizarte edo osasunean izan duen garrantzia eta sortu dituen kalteak; legez kanpoko irabazi-asmoa eta lorturiko mozkinen zenbatekoa; arau-haustek behin eta berriz egitea (arau-haustea behin eta berriro egin dela esaten da, administrazio-bidez sendetsitako erabakiz Ordenantza honetan aurrikusten den arau-hausteren bat zigor-espeditentea hasi aurreko bost urteetan egina izateagatik zigortzen denean) eta arau-haustea leporatzean eragin dezakeen beste edozein.

Administrazioarekiko arau-hauste bi edo gehiago osatzen dituzten ekintzak direnean, kopururik handieneko zigorra jarriko da.

## **60. Atala**

Zigor-ahalmena erabiltzeko, dagokion administrazio-espeditentea hasi eta izapidatu beharko da, lege edo arauzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Udalak izapidatuko ditu zigor-espeditentek eta arau-hauste oso larrienak badira, ahalmena duen Foru Organoari helaraziko dizkio. Horrek ezarritako zigorren zenbatekoa udal kutxetan sartuko da.

Arau-hauste arin eta larrietarako aurrikusitako zigorra ezartzea Alkateari, hau da, Korporazioko Lehendakariari, dagokio.

Ordenantza honetan aurrikusitako edozein zigor ezartzeak ez dakar zigortuak erantzukizun zibilik ez izatea.

Arau-haustek delitu edo hutsegitetzat jotzen diren kasuetan, zigor-eskumenari ekintzen berri emango zaio.

## **61. Atala**

Arau-hauste gehiago izan ez dadin, zigor-espeditentea ireki ondoren, honako bermezko neurri hauek hartu ahal izango dira:

- 1.- Animalia bategi batek Lege edo Araudiek debekatu duten ekintzaren bat jasan duen susmorik izanez gero, animalia badaezpada bahitzea eta zaintzea; hona hemen animalion ezaugarriak:
  - Behar bezala elikatu eta alojaturik ez dauden animaliak.
  - Gaixo eta zaurituta egonik albaitariaren tratamendurik ez dutenak.
  - Pertsonak kutsa ditzaketen gaixotasunak dituztenak.
  - Afekzio kroniko sendagaitz larriak, mozketak mingarriak edota oinaze handiak eta ezinezkoak dituztenak.
- 2.- Instalazio, lokal edo establezimenduak badaezpada ixtea.
- 3.- Bermezko neurriek, beroriek hartzeko zegoen zioak jarraitzen duen arte iraungo dute. Animaliak erretiratzea ezin izango da espeditentearen sendetsitako erabakitik aurrera luzatu eta prebentziozko itxierak ez du 58. Atalean aurrikusiriko epearen erdia baino gehiago iraungo.

## **62. Atala**

Isunak borondatezko epealdian exigituko dira edota araubide lokaleko arauen arabera premiamendu bidez.

## **63. Atala**

Arau-hauste arinek lau hilera galduko dute indarra; larriek urtebetera eta oso larriek bi urtera.

Zigorrek, berriz, bost urtera galduko dute indarra 500.000 pezetakoak baino txikiagoak direnean.

## **XEDAPEN DEROGATZAILEA**

Honako honen aurka datozen Ordenantza, Araudi edo Udal Bando guztiak indargabetuta geratzen dira.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Agintaritzen Aldizkarian behin-betiko onesteko udalbatzaren akordioa argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

DILIGENTZIA: Animalien Jabetza eta Babeserako Udal Ordenantza, 1995ko apirilaren 27ko Udalbatzan behin-betikoz onartu zela jasota gera dadin, eta 1995ko ekainaren 16ko 114 zkizko GAO-n osoki publikatua. Idazkari-Kontuhartzailea.